



Modernotasuna

Sarrera

Modernotasuna oso une nahasian iritsi zen Europara eta Euskal Herrira. XX. mende hasieran hasi eta 50eko hamarkada arte gertaera politiko eta militar larriek astindu zuten Kontinente zaharra. 1914an Lehen Mundu Gerra piztu zen eta mendebaldeko gizartearen pentsaera eraldatzeaz gain ordu arteko sistema inperialistaren krisialdia ekarri zuen. 1917an Errusiako Iraultza hasi zen, kapitalismoari aurre egin nahirik sistema komunista ezartzeko helburua zuena. Kontinente zaharra arlo sozialean, politikoan, ekonomikoan krisialdi sakon batean murgildua zegoen eta guztiak Bigarren Mundu Gerran egin zuen eztanda.

Gertaera politikoeekin batera, aurrerapen zientifikoek eta teknologikoek gero eta garrantzi handiagoa zeukaten eta pixkanaka horietatik zetozen produktuek (etxe orratzek, automobilerik, hegazkinek...) ordu arteko industria eta merkataritza osoa eraldatzea lortu zuten. Garai honetakoak dira, gainera, denbora-pasara zuzendutako lehen hedabideak, hala nola, irratia eta zinema.

Testuinguru honetan agertzen dira artean abangoardia historikoak, ordu arteko tradizio artistikoarekin erabateko haustura bilatu eta artea garai modernoan barneratu zutenak.

Modernotasuneko artea

XX. mende hasierako artea oso une nahasian iritsi zen Europara eta Euskal Herrira. Tentsio sozialak bizi ziren eta artistek gizarte horren gogorkeria adierazteko beharra sentitu zuten. Horretarako, lengoia eta forma tradizionalak baztertu eta errealitatearen edozein erreferentziari uko egin zioten.

Bohemioak deituriko artista haiek ez zioten botereak agindutakoari erantzun, eta hortaz, akademiaren arau eta babesetik kanpo, lanbide bat izateak ziurtatzen zuen diru-sarrera galdu zuten. Baina, aldi berean, espresio-askatasuna irabazi zuten artista haiek.

Artearen esparruan desagertu egin ziren batasun estilistikoak eta arte-mugimendu ugari eta ezberdinak sortu ziren, etenik gabe, zenbaitetan, aldi berean ere gertatzen zirenak. Mugimendu haiek beti aldatzen ari zen gizarte baten eskaerei erantzuten saiatzen ziren, baina batez ere artista bakoitzaren sormen askatasuna adierazten saiatzen zuten. Era horretan, modernotasunaren pean, arte modu berri bat hasi zen garatzen, gizartearen eskakizunak momentuko ikusmoldetik agertu nahi zituena. Eta eklektizismoak ez bezala (eklektizismoak historizismotik abiatu eta iraganera jotzen baitzuen) arte mugimendu berriek etorkizunera begiratzen zuten.

Modernotasuneko artea Euskal Herrian

Mende hasiera honetan, Europako beste lurralde batzuetan garatutako kultura- zein arte-esparruko abangoardiako mugimenduak ez zuten eragin handiegirik izan. Berez, Euskal Herrian garai honetan ez zen abangoardiako mugimendurik sortu eta lehen hamarkadetara arte eklektizismoaren ezaugarriekin jarraitu zuten. Dena den, atzeritik etorritako artea, berandu iristen bazen ere, moldatu eta egokitu egiten zen, bertako berezitasunak eta ezaugarriak txertatuz.

Garai honetan euskal arteari eginiko ekarpenik garrantzitsuena lengoaia modernoaren agerpena izan zen. Hasieratik lengoaia honek forma eta funtzioa bateratu nahi izan zituen, material berriak baliatu, eraikinetan beharrezkoa ez zen dekorazioa kendu eta geometria formak erabili. Garaiko gizartearen beharretara moldatzen zen arkitektura-erantzun bezala egituratu zen.

Arte plastikoen alorrean, esaterako, pintura izan zen garapen handiena lortu zuena. Pinturaren gorakada horrekin batera, artista ugari agertu ziren, eta bestalde hainbat ekintza berritzaile gertatu ziren. Edonola ere, euskal artearen inguruan ez zen modernotasun propiorik gauzatu, baina Frantziatik zetozen zenbait ezaugarri berritzaile bereganatu zituen. Impresionismoa, sinbolismoa eta postimpresionismoa izan ziren, euskal artistek Europara (Pariserara zehazki) egindako bidaiaren ondorioz, garaiko euskal artea baldintzatuko zuten hiru mugimendurik garrantzitsuenak. Bestalde, eskulturak ez zuten pinturak erdietsi zuten garapena lortu.

Modernotasuneko arkitektura

XX. mendeko lehen urteetatik, industrializaziotik eta hiri-hazkundeetatik sortu zen gizarte berriaren beharrei erantzuten saiatu ziren arkitektoak. Lehen Mundu Gerraren ondoren, modernotasuna indar betean zen garaian, arkitekto talde baten helburua, Iraultza Industrialaren eta gerra ezberdinen ondoren gizarteak etxe eta hirigintza alorretan zituen premia berriei modu eraginkor, funtzional eta merkean erantzungo zieten formulak sortzea eta bideratzea izan zen.

Garai honetan hiru arkitektura-tendentzia nabarmendu ziren bereziki:

- **Funtzionalismoa edo arrazionalismoa.** Gerren arteko aldirian Europan zabaldu zen mugimendu arkitektonikoa izan zen. Ezaugarri nagusia zen arkitektura funtzionaltasunean oinarritzen zela. Formen sinpletasunak eta bolumen hutsak (kuboa, esfera, zilindroa eta konoa) ordezkatu zituen aurreko joera arkitektonikoetan nabariak ziren apaindurak. Forma arkitektoniko guztiek eraikuntzaren funtzioa islatu behar zuten eta, beraz, arkitektoak edertasun estetikoari baino gehiago beharrei eta erosotasunari begiratu behar zion. Joera honetan aipatu beharreko arkitektoa Le Corbusier suitzarra da.

- **Bauhaus Eskola.** Walter Gropius alemaniarrek 1919an sortutako arte-, diseinu- eta arkitektura-eskola bat izan zen. Bauhausek XIX. mendean artearen eta manufakturarean artean izan zen haustura gainditzeko ahalegina egin zuen eta lengoaia komun bat eraikitzen saiatu zen. Europa osoko abangoardiako artistak gehitu zitzaizkion proiektuari.

- **Arkitektura organikoa.** Intuizioan eta sorkuntza-askatasunean oinarritua zegoen estiloa eta ondorengo printzipioak bultzatzen zituen: sinpletasuna, estilo aniztasuna, ingurunearekin bat egitea eta materialen naturaltasuna bilatzea. Estilo honen lidergotza Frank Lloyd Wright estatubatuarrek hartu zuen.

Modernotasuneko arkitektura Euskal Herrian

Nahiz eta oro har Euskal Herrian eklektizismoa izan zen XX. mendearen lehen erdian egindako obra gehienen estilo nagusia, lengoaia modernoaren sorrera izan zen aldi honetako ekarpenik garrantzitsuen eta erabakigarriena. Lengoaia berri horren helburua honako hau zen: forma bat baino gehiago lortzea, material berriak erabiltzea, eraikinari dekorazioa kentzea eta forma geometrikoen baliatzea. Aipatu den bezala, modernotasuna une hartako gizartearen premien erantzun arkitektoniko gisa egituratu zen.

Modernotasuneko euskal arkitekturari hiru aldi nabarmendu behar dira:

Lehen aldia. Garai honetako eraikinek, lengoaia modernoa oraindik erabat bereganatu gabe zutela, ondoren arrazionalismoa izendatuko zen mugimendurantz jo zuten. Arkitektura-lan hauen artean azpimarragarriak dira, Mario Camiñak egindako Gortizko ospitaleaz gain, lehen estilo modernoaren garapenean hain garrantzitsua izan zen itsaso-estetikaren xehetasunak biltzen dituen Antonio Araluceren Algortako Igeretxe bainuetxea, eta hiru arkitekto bizkaitarren (Teodoro Anasagasti, Antonio Palacio eta Secundino Zuazo) Lanik garrantzitsuenak Euskal Herrikan kanpo egin bazituzten ere, gaztetan egindako zenbait lanetako formetan eta materialen erabileran, dudarik gabe modernotzat har daitekeen espiritu baten aztarnak utzi zituzten.

Bigarren aldia (1920ko hamarkada). Aldi honetako arkitektoek Le Corbusier suitzarraren printzipioak jarraitu zituzten. Euskal arkitektoen artean nabarmendu zena Jose Manuel Aizpurua gipuzkoarra izan zen, ondoren GATEPAC taldea sortuko zuena. Talde honen helburua arkitektura arrazionalista sustatzea zen. Belaunaldi horretan kokatzen dira, halaber, Jose Manuel Aizpurua eta Joaquin Labaien gipuzkoarrak.

Garai honetan obra gutxi egin ziren, baina egin zirenak, guztiz berritzaileak izateaz gain, oso esanguratsuak izan ziren. Guztietan aipagarriena Aizpuruaren eta Labaienen Donostiako Klub Nautikoa izan zen, estetika berriaren maisu-lana eta elementu arrazionalista eta espresionistak harmonizatu zituen: hormigoia armatuzkoa da, makina batek bezala jardun dezan mekano gisa, zutoinen gainean ipinia; espazioa askatasunez antolaturik, hormak zulatzeko eta leiho horizontal zabal jarraituak irekitzeko aukera eskaintzen du.

GATEPAC taldeko gainerako kideek ere beste zenbait lan aurrera eramane zituzten: Tomas Bilbaok Bilboko Ripa kaleko etxebizitzak eraiki zituen, Fernando Arzadunek Bermeon Kikunbera etxebizitza, Emiliano Amannek Bilbon Solokoetxekeko etxebizitzak, eta Pablo Zabaloek Biasterin Lezako tuberkulosiaren aurkako osasun-egoitza.

Hirugarren aldia (30.eko hamarkadaren bigarren erditik aurrera). Arrazionalismoa modu zabalagoan bereganatu zen eta, beraz, askoz ugariagoak dira aldi honetako eraikuntza adibideak. Estilo horretan eraiki zuen Manuel Maria Smithek Areetan etxebizitza-erakin bat, Manuel Ignacio Galindezek, Bilbon Equitativa eraikina, eta konpainia berarentzat Fernando Arzadunek Donostian egindakoa, Gasteizen Jose Luis Lopez Uraldek Goya zerbitzugunea eta San Antonio kalean Jesus Guineak etxebizitza-sorta, eta Iruñean Joaquin Zarranzek Sarasate Ibilbideko Caja Navarraren eraikina.

Garai horretan arkitekto berezi bat nabarmendu behar bada Victor Eusa nafarra da. Bere obrarik gehiena Iruñean egin zuen eta modu ezin hobean jakin zuen konbinatzen, ikuspuntu pertsonal eta sortzaile batetik, eklektizismoa, modernismoa, sinbolismoa, arrazionalismoa eta espresionismoa. Bere lanik interesgarrien artean, Iruñean, Seminarioa, Eskolapioen ikastetxea, Miserikordiaren Etxea eta Bahia eraikina aipatu ditzakegu, eta Tafallari dagokionez, udalerrri horretako nagusien etxea.

Modernismoa estiloa

Aipatutako estilo hauen aurretik bada beste estilo bat XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran garatu zena: modernismoa. Estilo hau XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran Europan eta Ipar Amerikan garatu zen arte-, arkitektura- eta diseinu-mugimendua izan zen. Herrialdearen arabera izen ezberdinak hartu zituen: Art Nouveau (Frantzia eta Belgika), Modern Style (Ingalaterra), Secession (Austria), Jugendstil (Alemania), Liberty edo Floreale (Italia) eta Modernismoa Espainian.

Euskal Herrian ez zuen apenas eraginik izan baina ezinbestekoa da estilo hau aipatzea, izan ere aurreko estilo historizistekin lehen haustura izan zen.

Dekoraziorako joera izan zen modernismoaren ezaugarri nagusia, eta Euskal Herrian adibide gutxi topatu ditzakegu: Iruñeko Ogasun Ordezkaritza, Erbina etxea (Gasteiz), Campos Eliseos antzokia (Bilbo) eta Donostian elementu modernistaren batzuk hainbat etxebizitzatan, besteak beste. Katalunia izan zen modernismoa modu sakonean garatu zuen lurraldea eta haren barruan, Bartzelona. Logikoa da hori, kontuan hartzen badugu modernismoa industria-burgesiari loturiko estiloa izan zela eta gizarte klase hori askoz garatuago zegoela Bartzelonan estatu espainiarreko beste edozein lurraldetan baino.

Arkitekto garrantzitsu ugari nabarmendu ziren estilo honen barruan, baina denen artean gailendu zena Antoni Gaudi katalana izan zen.

Gaudik fantasia handiko lan sortaileak eta pertsonalak egiten hasi zen, obra modernista petoak eskainiz. Artisauen egiteko moduek garrantzi handia hartu zuten: dekorazio-moldeak eta eraikuntza-prozedurak bideratzeaz gainera (harria zizelkatzeko, forjatuak lantzeko... modu berriak), egitura eta euskarri-sistema guztiz berriak eta trebetasun tekniko handikoak garatu zituen (maketa burutsuez baliatzen zen egitura haiek probatzeko). Garai hartakoak dira Batllo etxea, Guell parkea edo bukatu gabe utzi zuen Familia Santuaren eliza, Bartzelona hirian guztiak.

Eraikuntza-elementuak

- Arkitekturaren estilo historikoak baztertzen dira.
- Eraikuntzen funtzionaltasuna eta originaltasuna bilatzen da: alderdi estetikoak bakarrik bilatu beharrean, eraikuntzaren beharrei eta erosotasunari begiratzen hasten zaio.
- Bolumen geometrikoak nagusitzen dira.
- Lerro zuzenak eta kurbatuak, eta ildo horizontalak eta bertikalak maisutasunez konbinatzen dira.
- Industriako materialak erabiltzen dira, esate baterako, beira, hormigoia eta altzairua.
- Leiho zabalak eta horizontalak irekitzen dira. Guztiz nagusitu da beiraren erabilera fatxadetan.
- Fatxadetako apaindurak ezabatzen dira eta dekorazioa albo batera uzten da.
- Oinplano asimetrikoak eta espazio irekiak nagusitzen dira.

Eraikinaren izena

Kikunbera etxea. Bermeo (Bizkaia)

Estiloa / Garaia

Modernotasuna, XX. mendea

Eraikinaren funtzioa

Arkitektura zibila

Deskribapena

Bermeon dagoen etxebizitza hau Fernando Arzadunek egin zuen. Portuaren eta Mundakako errepidearen artean kokatuta dago, malda izugarri batean. Nautiko estiloa sumatzen da, hau da, ontzi baten itxura dauka. Fatxadan, behetik gora, elementu hauek ikus daitezke: behe-sotoa, beheko solairua, solairu nagusia eta azkenik bi pisuko dorrea. Dorre honek garapen horizontala puskatzen du. Etxearen profilak lerro zuzenak eta makurrak batzen ditu. Hainbat elementu erabiltzen dira itsasontziaren itxura azpimarratzeko: masta du dorrean, koloreak, ...

Arkitektoa

Fernando Arzadun Ibararan

Eraikinaren izena

Lezako hospitalea. Leza (Araba)

Estiloa / Garaia

Modernotasuna, XX. mendea

Eraikinaren funtzioa

Arkitektura zibila

Deskribapena

Tuberkulosia gaixotasuna sendatzeko eraiki zuten erietxe hau Arabako Leza herrian. Pablo Zabalo arkitektoa izan zen egilea eta eraikin arrazionalista eta moderno diseinatu zuen. Hormigoiz egina dago. Luzeran ere garapen handia duen eraikina da. Beheko lehen solairuan zerbitzu orokorrak finkatu zituen eta gainerako zerbitzu guztiak solairuetan antolatu zituen. Gela guztiak hegoaldera begira daude, eta terraza independentea dute, horrela gaixoentzat hain garrantzitsua den eguzkia lortzeko. Eraikinak zituenapaingarri bakanak Lucarini-ren hainbat erliebe ziren eta lorategian zeuden.

Arkitektoa

Pablo Zabalo Ballarin

Eraikinaren izena

Estiloa / Garaia

Eraikinaren funtzioa

Deskribapena

Arkitektoa

SACEM. Billabona (Gipuzkoa)

Modernotasuna, XX. mendea

Arkitektura zibila

Arkitektura industrialari dagokion eraikin hau modernotasunaren eredu da. Luis Astiazaran arkitektoak eraiki zuen 1939. urtean. Hormigoizko eraikin honetan horizontaltasuna eta bolumen geometrikoak nabarmentzen dira. Fatxada nagusian portiko erraldoi bat aurkitzen dugu. Bulegoak gune horretan kokatuta daude. Leiho luze eta zabalek zeharkatzen dituzte alboko eta atzeko fatxadak.

Luis Astizaran Galarza

Eraikinaren izena

Estiloa / Garaia

Eraikinaren funtzioa

Deskribapena

Arkitektoa

Luis Briñas ikastetxea. Bilbo (Bizkaia)

Modernotasuna, XX. mendea

Arkitektura zibila

Luis Briñas ikastetxea 1933. urtean inauguratu zen eta gaur egun ikastetxe publikoa izaten jarraitzen du. Euskal Herrian arkitektura arrazionalistaren eredu garrantzitsuenetakoa da eta Pedro Ispizua arkitekto bizkaitarra izan zen egilea. Lau solairutan antolatuta dago eta fatxada nagusian forma desberdinak konbinatzen dira. Erdian dagoen dorrea nabarmentzen da. Atezko fatxadan, horizontaltasuna eta leihoak dira protagonistak.

Pedro Ispizua

Eraikinaren izena

Estiloa / Garaia

Eraikinaren funtzioa

Deskribapena

Arkitektoa

Goya gasolindegia. Gasteiz (Araba)

Modernotasuna, XX. mendea

Arkitektura zibila

XX. mendean, autoen erabileraren gorakada zela medio, eraikin mota berriak sortu ziren: garajeak, autobus geltokiak, tailerrak eta gasolindegia, besteak beste. Goya gasolindegia Gasteizen kokatuta dago. Estilo arrazionalistako beste eraikinak bezala, hormigoizkoa da. Geometria, horizontaltasuna, apaingarri eza eta funtzionaltasuna dira bere ezaugarriak. Elementu nabarmenena, hormigoizko markesina handia, fatxada nagusian dago.

Jose Luis Lopez de Uralde Elorza

Eraikinaren izena

Estiloa / Garaia

Eraikinaren funtzioa

Deskribapena

Arkitektoa

Nautiko Elkartea. Donostia (Gipuzkoa)

Modernotasuna, XX. mendea

Arkitektura zibila

Jose Manuel Aizpurua eta Joaquin Labaien arkitektoek egin zuten eraikin arrazionalista hau. Kontxa Badian kokatuta dago eta itsasontzi baten forma hartzen du Klub Nautikoak. Eraikin xumea eta sinplea da. Hiru solairutan antolatuta dago, mendebaldeko gunean terrazak daude eta ekialdean forma kurbaduna duen fatxada aurkitzen dugu. Argia lortzeko eta eguzkia bilatzeko, leiho zabalek eraikina zulatzen dute.

Jose Manuel Aizpurua / Joaquin Labayen

Eraikinaren izena

Estiloa / Garaia

Eraikinaren funtzioa

Deskribapena

Arkitektoa

Gorlizeko ospitalea. Gorliz (Bizkaia)

Modernotasuna, XX. mendea

Arkitektura zibila

Mario Camiñak eraiki zuen Gorlizeko ospitalea 1912an. Euskal Herrian erabat hormigoiez eraiki zen bigarren eraikina izan zen. Bost pabiloi independentek osatzen dute eraikina. Horien artean ospitalea garrantzitsuena eta handiena da. Eguzkia eta haizea aprobetxatzeko diseinatuta dagoenez, itsasoari begira dago eta tamaina handiko balkoi eta leihoak banatzen dira fatxadan. Sabaia laua da, solarium gisa erabiltzeko. Apaingarri moduan, azulejo ilarak ditu. Koloreei so eginez gero, zuriaren eta urdinaren arteko konbinazioak agertzen dira.

Mario Camiña